

borthizki ohi hersten zuten, «Jainkoaren hitz pura» behar adiarazi baitzuten. Hartako zerbeit ez bada argi irakurgaiia sainduan, ez da itzulzean argi. «Haur bai erranen dut, dio Leizarragak eskain-letran, ezen bethi orhoitik nola Jainkoaren manu espresa den haren hitzari deus edeki eztakion ez eratzeki: hala egin ahal dudan fidelkiena egin ukhan dudala.» Bertze irakurgaiak ez dire hainbertze hertsiki itzuliak.

Zein kondizionetan lan handi hau hasi eta urhendu zen? Pau'en bildu Bearnoko Sinodoaren ordenanzaz, mila bortz ehun eta hiruetan hogoi eta lauean, martxoaren hamalauean, Joanes Leizarraga Beraskoizkoa kargatu zen Testamentu berriaren eta bertze irakurgaien itzultzeaz. Orduan egoiten zen «Laphurdin»; paperek ez dute deus ere gehiago erraiten. Hari manatu zioten lana egin zezan Pau'en. Ministroa izendatu eta, mila bortz ehun eta hiruetan hogei eta zazpian, aphirilaren hamabortzean, igorri zen Labastide-Clairence'rat, Eskual Herriari hurbilerat. Hil arte han egon zen.

Bearnoko Sinodoaren manuz, lau lankide, lan eginaren bisitazteaz eta konferitzez «behar izan zenean» kargatu ziren: Tartas, La Rive, Landetcheverry eta Tardets. Hetaryik bida bederen zuberotarrak ziren: Sanz de Tartas Sarrikotapekoa, eta Pierre de Landetcheverry Ündüreñokoa. Ez dakigu nola lau lankideek beren saila egin zuten. Bainan dudarik batere gabe Leizarraga zen buruzagia.

Lan manatua, ez bazen ere errex, arthoski egin zen. Nahiz Leizarragaren sor mintzairu mota, Beskoitzekoa, zen nafarrazkoa, hautatu zuen eskual literaturazko mintzairuaren zolatzat mintzairu bat, erraiteko maneran, bertzeen artekoa, laphurtarra. Arrazoinekin. Hala ideki zuen bidea errege bide agertu da.

Leizarraga idazle handi bat othe da? Adiarazi dituen gogoetak ez ditu berak asmatu. Bainan eriden du heien adiarazteko mota. Eta khontuzko gauza da hori. Eskual Herrian, bertze herri hanitzetan, agian ere guzietan, bezala, lehenik neurthitzetan kanpoko herri hainitzetan bezala, hitz laxotan izkiriatu zuten lehen idazleak itzulariak izan ziren. Hori errexki adigarri da. Itzultzen ari dena, bereziki Jainkoaren hitza itzuli nahi duena, ez zaio ahal bere fantasiari jarraiki. Itzultzea etserizio arras ona da, elhea aberasten eta malgutzen baitu. Itzulariak ez dire lehen aldian ongi heldu. Leizarragaren izkiria-mota maiz dorpea da. Bainan orhoit gaitezen Dechepereren liburuko aintzin solasa, hitz laxotan izkiriatura, zein luze

eta pizua den. Ez da barritzeko. Eskuararen egitura erdararenaz guziz bertzelakoa da. Bertzalde Leizarragak mailegatu ditu sobera erdarazko hitz: hala nola *mestedostal* hitzaz. Zertako ez *sebi buru* edo *mutbil nausi*? Leizarragak eta, dudarik gabe, haren lankideek, ezagutzen zituzten osoki eskuara eta haren jalgibideak. Bazakiten, partikulazki, eskuarazko berboa zein aberatsa den. Oroz gainetik Leizarragak, haren lankideek lagundurik, erabili duen mintzaire berak moldatu du, eta mintzaire hau, Grezia zaharrea *koine* deitzen zutenarenantzora, modelatuz Eskualdun guziei eman diote. Zola laphurtarra da; bainan zenbait nafatar erran-molde, bai eta ere zuberotar daduzka. Bertzalde, Leizarragaren liburueta markatua da hainitz hitzetan seinale batez bertzeak baino azkarkiago erraiten den hitzaren partea. Orai irakur dezagun Pierre Lafitte kalonje gure Eskualtzainkideak bere gramatika orotan aiphatuan, duela hogoi eta zortzi urthe, zer izkiriatu duen. «Jakiara ez jakiara idazle berriek, hiruetan hogoi urthez geroztik, nahiz heien gramatika-moldurako kadrea kasik osoki laphurtarra zen, barnerat sar-arazi dituzte nafatar hainitz ekhai, bai eta ere zuberotar hatz.» Hala sorthu da literaturazko mintzaire bat Eskualdun guziek, bederen leihorrezko Eskual Herrian, elgarreki ahal erabilten dutena eta nafatar-berri edo hobeki nafar-laphurtarra deitzen duguna.»

Orai, hitz hoietan Luis Michelena gure Eskualtzainkideak erraiten dauku zein lerrotan Eskual-idazleen artean ezarri behar dugun. «Leizarragaren entseguak ez zituen holako ondoreak izan literaturazko eskuararen fink ezarriteko ahalko izanen baitzituen, liburu sailduen itzulpenak hainbertze herritan izan dituen bezala. Santsitu zen entsegu hori erlijione protestantaren hedatzea herrian hondatzen zelarik. Nahiz Leizarragak egin itzulpenetik dudarik gabe lekhu hainitz athera izan ziren, baitakigu geroztikako idazle batzuek ezagutu zituztela (Pouvreau aphez katolikoa asko baliatu zen «Testamentu Berria»z bere hiztegiaren egitera), sinheste makurrak zirelakotz, ez zuten batere eskurik ahal izan geroztikako literaturaren gainean. Ondoko mendean aberaski lilitzen zirelarik idazle katolikoak, Leizarragak ezarri mintzaire motak lekhu utzi zioen bertze bati, ez baitzen hain hertsiki usantza zaharrari jarraikiten, eta jende guziek aditzen ahal baitute. Bertzalde mintzaire hau lekhu koloreak gehiago tindatzen zuen: Sarako eta Donibane-Lohitzuneko laphurtarra.»

Aspaldiko mendeek zirauteno, eskuara ilhunpean nekez doi-doia, dudarik gabe, bizi izan zen. Hamaseigarren mendean, bi Eskualdun khartsuk erakutsi eta phorogatu nahi izan zuten eskuara, bertze mintzairak bezala, «eskribatzeko hon» zela, lehenik neurthitzetan, geroz hitz laxotan. Ez elgarrekin, ez batean. Bi partetan, bi erditan argitaratu zen phorogua. Nehor ere ez zen bi erdien bateratzea atrebitu. Nehor ere ez zen Dechepareren ez Leizarragaren izenen aiphatzera ausartu. Nehork ere ez bataren ez bertzearen ikaslea, jarrailea guti edo aski zela aithortu nahi zuen. Apheza bekhatuzko amodioaren khantaria izan zen; ministroa, egiazko erlijioea ukhatu eta, haren etsaia bilhakatua zen. Aphez katolikoaren eta ministro protestantaren obrak gaitzeru pean ezarriak ziren. Bainan ez zuten lur harrizu gainean erein. Egungo egunean, Jainkoari eskerrak, gogoetak eta bihotzak khanbiatuak dire. Haizu gare bien izenen gorestera. Eta erran dezakegu ez kinukeela Joanes Etcheberri'rik ez Axularr'ik ez balire izan Dechepare eta Leizarraga.

René LAFON'ek.

## ARAMAIOKO HITZALDIAK

### ARAMAIOKO BATZARRE AGERIAN EUSKALTZAINBURUAK EGINDAKO HITZALDIA

Jaun-Andreak:

Araban du gaurko batzarrea Euskaltzaindiak. Euskalerriko alderdi guztiak ikuskatu eta bisitatu ohi ditu gure Akademiak, eta gaur Arabari tokatzen zaio txanda. Bai. Euskalerraren zati ezin utzizkoa dugu Araba. Gure idazle zaharrek Euskalerriko alderdi guztiak bana banaka izendatzen dituztenean, han dator beti Araba eta Arabako euskeraren aipamena. Bai Axularrek eta bai Oihe-nartek ere Araba eta Arabako euskera gogoratu digute.

Hegoaldeko eskualdea dugu Araba. Hori dela ta, latina eta latinaren kume diren erderak goizago sartu ziren bertan. Hala ere,

bere euskaltasunaren marka ugariak —harrigarriak, bihotz ukigarriak, nik esango nuke— utzi dizkigu Arabak. Erraietan tinkaturik dauzka Arabak euskal marka hoiek.

Gure euskal idazleetan zertzelada eta xehetasun asko dago Arabako euskerari buruz: bai Kardaberaz, bai Añibarro, Larramendigan ta abar. Aita Bernardo Recio-k XVIII. mendean euskeraz ikasi eta Arabako zenbait herrixkatan (Aspuru-n ta abar) mixioak eman zituela esaten digu. Elgea-n euskera isildu dela ez dira berrogei ta amar urte izango. Juan Mateo de Zavalak joan den mendean Luyando eta inguruetan mixioak euskeraz ematen zituela badakigu. Landazuri-k ere berri jakingarri asko utzi digu Arabako euskerari buruz.

San Millan-go herri izendegiari eskerrak dakigu nola deitzen ziren Arabako herriak orain dela mila urte eta lehenago: Hagurahin, Dulanci, Narbaiza ta abar. Izen zerrenda hortatik argibide asko atera dezakegu Arabako euskera antzinate hartan nolakoa zen jakiteko. Izen hoetatik batzuk gero aldatu egin dira, beste batzuk berdin xamar edo aldaketa gutirekin gaur arte heldu dira. Landucci-ren hiztegiak ere Arabako euskeraren hitzak eta berriak ematen dizkigu.

Toki izenetan, berriz, aparteko joritasuna du Arabak, eta bertan egiten den erderan ere euskal jatorrizko hitzak erruz aurkitzen dira. Hitz hoetatik asko eta asko jasoak daude Baraibar y Zumarraga eta López de Guereñu jaunen lanetan, eta seguru asko badira oraindik hamaikatxo jasogabeak.

Euskal idazleak —nahiz olerkari, nahiz teatrogile nahiz pro-sistak— eman dizkio Arabak ama euskerari, bai joandako mendetan eta bai gure egunetan ere. Juan Bautista Gamiz, L. Latierro, Barrutia, Ulibarri Galindez, Jauregi karmeldarra, Olabide jesuita, ta abar.

Ez. Euskera ez da arrotza Araban. Bere berea, etxekoa du Arabak gure mintzaira. Gaur ere euskaltzaletasunean arabarrak ez dira azkenengoak. Badakigu arabar asko saiatzen dela euskera ikasten.

\* \* \*

Baina Euskaltzaindiak, gaur Arabara etorri denean, ez du topo egin behinolako oroigarri batzuekin edo euskal ondakin hil batzuekin. Ez ditu hemen hezur iharrak aurkitu. Ez. Aramaioko bailara

hontan euskera bizi bizirik dago. Zutik, bizkor eta zoli irauten du gure mintzairak Arabako txoko honetan. Bejondeizuela. Euskaltzaindiak bere aitorra, bere eskerrona agertu nahi dio gaur Araban euskaltasunaren testigurik finena den alderdi honi.

Eta guztiei —guraso, apaiz, agintari, maisu, gazte, ume, gizon nahiz emakume— guztiei eskatu nahi die, arren, gure herriaren ondasun hau, gure izatearen arima, lokarri eta odola bezala den euskera hau ez dezatela galtzera utzi. Araban orain arte pizturik mantendu duzuen argizuzia ez dezazutela itzaltzera utzi.

Badugu gaur euskaldunok arrisku bat, tentazio gogor bat: aurrerapenaren izenean, zibilizazio berri eta orokarraren aitzakiaz, gure mintzaira arbuiaitzeko tentazioa. Engainu ikaragarri bat litzake. Herri guztiek bere nortasuna, bere izakera eta kultura berezia gordetzen duten bitartean, eta era hortara, eta ez bestela, herri guztien arteko anaiatasunari eta benetazko kulturari eta zibilizazioari laguntzen dioten bitartean, guk kontrara jokatzea. Euskalerrriak bere nortasuna ukatu eta bere izateari traizio egingo balio, gizarteko zibilizazio eta kulturari mesede ez, baina kalte egingo lioke. Ez da hizkuntza bakarrik. Hizkuntzarekin batean loturik dijoaz izpirituaren ondasun, dohain eta berebiziko balioak. Eta hoiek alferrik galtzeko ez dugu eskubiderik.

Eskerronezko hitz bat, azkenik, Aramaioko alkate jaunari, Euskaltzaindikoei egin digun harrera on eta eman dizkigun erraztasunakgatik. Berari eta Araban kargudun direnei eskari erregu bat: izan dezatela kezka eta ardura Aramaioko ondasun berezia den euskera gure gizaldi honetan gal ez dedin, orain arte gorde den bezala, orain eta gero ere iraun dezan. Landare berrietan, ume eta gazteetan ez dedilla eten, ez dedilla moztu euskaltasunaren lokarria. Gure zabarkeriaz galduko balitz, errudun gertatuko bait ginake munduaren eta kondairaren aurrean.

L. VILLASANTE

Aramaion, irailaren 5ean, 1971.

## A R A M A I O N A ' K O

- *Euskeraren berezitasunak,*
- *Euskal idazleak, eta*
- *Euskeraren egoera eta etorrera.*

Euskaltzaindiaren Batzar Agirirako,  
 Uribarren'dar Patxi'k gertatutako itzaldia.  
 (1971'ko Irailaren 5'tean)

## ITZ-AURREKOAK:

Zeregin astuna esku artean artu dotena. Ezin ba amabost minutuan arlo hau, bear dan eran sakondu. Itzaldi honetan ba, barri batzuk aitatu baino ezin izango dot egin.

Lantxo hau zati bitan bananduta daukazu errezago ta obeto aitu daizun. Honeik dituzu zati bi horreik:

*1'goan...* Aramaio'ko berezi-izatea eta euskal-idazleak aitatuko ditut.

*2'garrenean:* Aramaio'ko euskeraren gaurko egoera eta biarko etorrera.

Beste barik, ba, zuon danon baimenagaz, lanari ekingo dautsat.

\* \* \*

## ARAMAIONA, ARABAKO ERRIALDE BEREZI BAT

Gaur egunetan Aramaionako errialde hau Arabako muga barruetan agiri jaku. Araba dala esan behar, naiz da antxina beste batera izan. Laureun urte honeitan Aramaiona Arabako zati dogu. Eta izan bere, zati berezi-berezi bat. Aramaiona, Araba barruan izan arren, bestelango erri bat legez agertzen jaku. Eta euki bere modu askotako ezbardin izateak daukaz. Hona hemen batzuk:

- a) Kondaira aldetik Aramaiona Arabatik guztiz baztartuta agiri jaku XV'garren gizaldirarte. Gizaldi horretan lotu zan, berak gura-ta, Arabari, bake-billa edo Gipuzkoa-Bizkaiko erriburuketatik igez egitearren. Ordutik hona Araba barruan bizi izan arren, bizitza bakar bat eroan dau. Arabaganako lokarri horreik

meheak izan dira eta hori dalata, Gipuzkoara begira egon jaku urte askotan, apur bat baztartuta edo. Kondaira aldetik errial-di berezi agertzen jaku ba.

- b) Giro ta bizimodu aldeari begiratuta be, beste ainbeste ikusten dogu. Araba-aldia lautara eta beroa dogun bitartean, Aramaio-na mendiz inguratuta eta ipar-itxaso giropean dago. Bilarletik aruntz Mediterráneo giroa eta andik onuntz Kantaurikoa. Hori dala-ta, landa, bedar, eta zugatzez beteta, orlegi agertzen jaku gure errialde hau, Araba geiena legor dagoan bitartean. Honek eta Gipuzkoarako urterak zer-ikusi aundia izango dabe gure erriaren bizitzan.

Au da: Aramaiotarrok, Araba barruan izan arren, beti apartekotzat euki dogu geure burua. Hemen «Arabara joan» esaten dogu, arabarrak ez bagina lez. Ori dala-ta, edo, Arabako erriak euren euskera galdu arren, Aramaiotarrok geurean jarraitu dogu. Bilarle'ko mendi tontorrek gelditu dabe euskera-ren atzerakada hori.

- c) Beste ezbardintza bat be badaukagu. Aramaiona'ko legeak eta Arabakoak ez bardinak ditugu. Araban antxinatik Kastilako legeak izan dira nagusi. Aramaiona'n ez. Emen, gaur egunez bere, Bizkai'ko foruak euren indarra daukee. Honek, bear bada, antxina Aramaiona Bizkaiari lotuta egon zala gogoratzen dausku. Berbetan bere, beste ainbeste ikusiko dogu.
- d) Azkenez gogoratu daigun Errialde honen ezbardintasunik sokonena: Euskera. Araba erdelduta gero bere, Aramaiona'k euskaldun jarraitzen dau. Honetan bere, bestelango errialde bat dogu ba. Euskera horrek, berealaxe ikusiko ditugun legez, bere aparteko alderdi ezbardin batzuk bere baditu.

## ARAMAIONA'KO EUSKERAREN BEREZITASUN BATZUK

Sarritan entzun dogu Aramaiona'ko gure berbetea euskaldi berezi bat dala ta olango batzuk. Nik ez neuke oraingoz olangorik esango, bertako euskerak apartekotasun batzuk euki arren.

Azaletik begiratura, Aramaio'ko berbetea ta Bizkaikoa antzerakoak dira, eta ala ta guztiz bere, ezin esan bat-bat-diranik. Hemen-

go euskera gaurkoz sakondu barik dagoanez, ezin dogu azken itzik esan. Jarri daigun ba Bizkaiko euskera bertakoaren oinarri lez. Eta behin hori holan gogoratu daiguzan bertako berbeteak dituan ez-bardintasan batzuk. Hona hemen batzuk:

- 1 ... Aditz-jokoan laburtze gogor batzuk ikusi daikeguz. Hone-tara: esantso, entzunsku, ekarrikost, ekarriskun, ekarritson, ekarri biesku... esan dautso, entzun dausku, ekarriko daust, ekarri euskun, ekarri eutson, ekarri bear dausku... esan be-harrean.
- 2 ... Aditz jokoak «gaurkoaren» eskema darabil «atzokoan» bere. Hau da: Zerbait-zer-nori-nork; ez dogu entzungo ba emen «ekarri neutzun», «zeustan»... «ekarri eutzuten», «eusta-zun» eta abar baino.
- 3 ... Bai «gaurkoan» bai «Atzokoan» aditz jokoak «asko» adie-razteko Gipuzkoako jokia artzen dau. Esate baterako: ekarri dot-ditut; ekarri neban-nituan...
- 4 ... «t» izkia ez da buztiten; au dala-ta beti «t» gogorra entzun-go dozu eta ez «d» bustia. Esate baterako, eutzuten eta ez eutzudan, artu dotena eta ez dodana...
- 5 ... «j» beti gogor esaten da emen eta ifioiz ez «i». Au da: Jauna eta ez «iauna»... «Jan» eta ez «Ian», «jantzi» eta ez «ian-tzi»...
- 6 ... Bizkaiko erara amaitzen ditugu itzak bakarrik darabilguza-nean. Au dala-ta, «xe» «ie» amaituko ditugu itzak: idixa, beixe, aundixe... aite, ormie...
- 7 ... Bokalak zabaltzera egiten dogu, batez be aditzetan. Onetara esango dogu: «dautsat» eta ez «deutsot»; «daukat» eta ez «deuket»; «Aundia» eta ez «andia», «gutxitan» eta ez «gi-txitan»...
- 8 ... Asko erabilten dogu, batez bere baserritarrak, «ika» aditz jokia eta beti arnas-gogorraz: Eroan joat, jok, joagu... ji-tuk, jituek... joan ninsoan, gintsezan, eta abar...
- 9 ... Amaiera bereziren bat aurkitzen dogu emengo berbetan: «Betiké» eta ez «beti»...

Amaitzeko, auxe esan daikegu: Oraindiño gai honetaz lan sa-  
konik egin barik dagoanez, ezin dogula eretxirik segurutzat emon.



Dana dala, agirian Bizkaiko aditz-jokoa darabilgu aramaiotarrak, eta itz eta doñu-arloan gipuzkoaruntz joten dogu. Onegaitik edo Gipuzkoarrak bizkaitartzat artzen gaitue, eta bizkaitarrak gipuzkoartzat.

## ARAMAIONA'KO EUSKAL-IDAHLARIAK

Aramaiona'ko errialde eta euskeraren berezitasun batzuk gogoratu ditugu. Orain bertako idazle batzuk aitatzera noatzue. Euskera arloan asko saiatu diranez bear-bearrezkoa dogu gaur heurak hemen aitatzea. Lelengo maila baten bi idazle jarriko ditut eta gero ostantzekoak aitatu baino ez. Ekin daiogun ba arloari.

Lelengo mailan gizon ospetsu bi agiri jakuz ba. Bat, antxinkoa, euskal literatura kondairan zaharrenetakoa; bestea gaurkoagoa. Gizon bi honeik Pedro Ignazio Barrutia eta Gabriel Jauregi ditugu. Biak, eskuz-esku, alkarregaz aitatu daikeguz. Biak, bide urratzaile ditugu. Barrutia, antzerki sailean; Jauregi, teknika arloan. Heurendako ba-nire oroipenik ederrena eta Aramaionatarron eskerrikerri beroena.

### *Pedro Ignazio Barrutia eta Basagoitia (1682-1759)*

Mondrago'ko eskribaua izan zan. Berari zor dautsogu antxinako antzerki labur bat: «Gabon gaberako ikuskisuna» edo «Acto para la Noche Buena».

Mondrago'n bizi izan arren, Barrutia aramaiotarra zan. Zalgo'ko semea. Azkue jaunari esker ezagutu eta eskuratu dogu antzerki zahar hori. Berak argitaratu eban lelenoz «Euskerazale» aldizkiaren 50 eta 51'garren aletan. Gero, Barrutiaren bizitzako barri batzuk batu eta, bai «Morfologia» liburuan, bai «Euskera» aldizkarian, argitaratu euskuzan. Baita gure idazle ospetsu horren antzerki zahar hori ainbat goratu bere. Geroagao, iru edo lau aldiz argitaratua izan da Barrutiaren antzerki hori. Aita Akesolo karmeldarrari eta Aresti jaunari eskerrak gaur egunean ezagunago dogu gure Barrutia. Idazle bi honeik, eretxi bardinekoak izan ezarren, biek goratzen dabe gure aramaiotar Barrutia'ren lan hori.

Ez daukat lan hori jorratzeko asmorik. Ezagutu eta irakurri gura dozuenok errez eskuratu zeinke bai «Euskera» aldizkarian, bai «Auspoa» liburu-xortan.

*Gabriel Jauregi eta Uribarren (1892-1945)*

Karmeldar honek aparteko txalo bat merezi dau. Berak idatzi zituan teknika arloko lelengo euskal liburu biak: «Fisia» eta «Kimia». Gai horretan jakitun zanez, oso ondo idatzita dagoz liburu bi horreik, eta gainera argazki askoz apainduta. «Aramaio» izenagaz lan asko argitaratu zituan «Karmengo Argia» aldizkari ospetsuan. Esate baterako: «Izarren gora-berak», «Azeriak zelan arrapatu», «Aramaio Araba ete da», «Argi-txakurrak zer ete dira» eta abar.

1930'garren urtean, 300 pesetako sari eder bat eskuratu eban, «Euskal-Esnalea» aldizkariak gertatutako sariketa nagusian. Elburu barregarri hau ezarri eutson bere lanari: «Anboto'ko doña Urraka'ren gonapean». Ikusten dogun legez ez eban egundo aramaiotar kutsua erantzi.

Idazle hau zerbait baztartuta euki dogu askenengo urte honetan, euskaldunok. Bere «Fisia» eta «Kimia» liburuak zer-erakutsi asko daukee, batez bere eskola-liburuak euskeratzen gabilzan une honetan. Gaurko idazleok zer-ikasi asko daukagu idazle honetan. Gabriel Jauregi, Aramaio-ko idazlerik onena eta ugaritsuena dogu. Zoritxarrez, gure gizona gazte il jakun.

*Beste idazle eta gizon ospetsu batzuk.*

Aramaiona'n beste idazle eta euskerazale batzuk be euki ditugu. Ezin ba eurak bere aitatu barik itsi. Naiko ondo irabazia daukeek gaur hemen gogoratzea. Honexeik dituzu:

*Rafael Eriz.*—Bolinbu'ko semea eta abadea. 1906'tik 1921'arteko urteak hemen Aramaiona'n egin zituan: Etxan'en, Ibarra'n eta Gantza'n. Euskerazale amorratua zan. Frantziar mojak hona etorri ziranean umeei erderaz erakutsiaz, gogor ekin eutson ume horrein artean, heuren euskera galdu ez egien. Bere beste barri aundirik ez dakigu: Gantza'n euskeraz eskola emoten ebalá, idatz lan batzuk bere idatzi zituala eta besterik ez.

*Ramon Kutzeta.*—Aramaiotarra izan ezarren, emen gogoratu gura izan dot. Politikari bat izan zan eta hemen Aramaiona'n, ekin eutson gizaldi honen lelengo urteetan, bai jai egunetan bai itzaldi beroak eginaz mitin-egunetan. Euskera utsean egiten eban berba gi-

zon erritar honek eta beti Aramaiona'ko errialde honen alde jokatuz. Bilbotar hau eskola bakoa zan eta erri berbetea erabili eban.

*Goikoetxea.*—Musikalari ospetsua bere gogoratu daigun, naiz da naiko ezaguna izan gure artean. Bera bere euskaldun zintzo bat dogu eta asko jaso ta zabaldu eban gure errialdearen izena.

*Roman Jauregi.*—Abadea bere, Goikorretako semea dogu. Gaur, larogi urte inguru daukaz. Berak bizkaieratu eban «Umeen laguna» liburua. Aldizkari batzuetan bere esku-artu eban «Euskal-Esnalean» esate baterako.

*Jose Jauregi Uribarren.*—Hau bere karmeldarra. Gabriel Jauregiren anaia. Etxan'en jaioa. Asko lagundu ei eutsan anaiari bere teknikazko liburu eder biak gertatzen. Naiz da bizitza osoa atzeritik egin, ainbat lantxo argitaratuak ditu «Karmengo Argia» «Euskadi», eta «Karmel» aldizkarietan. Iru izen erabilten ditu bere lanak izenpetzeko: Gotzon, Anjelo, Jauregi. Azkenengo urte honeitan lan eder bat gertatu dau: «Euskal-aditza». Lan honetan, aurrez-aurre jarten dauskuz Euskalerriko lau euskaldi nagusien aditz-jokoak. Oso lan interesgarria dogu euskaldiak euren artean dituen antzak eta ezbardintzak begikada batean ikusteko. Ez dau argitaratu.

### *Beste batzuk:*

Hor diardue jo ta ke zerbait egin gura edo: SABIN SALABERRI, abade musikalaria; FLORENZIO UNZUETA, abadea eta bere anai ANTONIO UNZUETA, Karmeldarra; PATXI URIBARRREN, Karmeldarra; FELIPE TOLOSA, abadea, eta beste banakaren batzuk. Olaeta aldeko, PEDRO PUJANA abadea, eta LEON ARANGUREN, Karmeldarra bere gogoratu daikeguz.

Ala ta guztiz bere, gure errialde honetan utsune bat ikusten dot. Orain arteko idazle guztiak, Barrutia izen ezik, abadeak edo praileak izan dira. Erriko gizonik ez jaku agiri. Ia hemetik aurrera erriko andra-gizon erritar batzuk be izaten ditugun. Horren behar aundia ikusten dot.

## ARAMAIONA'KO EUSKERA GAUR, ETA BIARKO ETORRERA

Gure euskeraren berezitasun batzuk eta gure arteko euskal-idazle batzuk aitatu ditugu. Orain, lan honetako bigarren zati honetan gure euskeraren gaurko egoera eta biarko etorrera astertu gura

ditut. Izan bere, erriak atzoari begiratu, gaurko izateari gogor ebatu eta biarko etorrera gertatu bear dau, bizitza bat eukitekotan. Guk bere, beste ainbeste egin beharko dogu gure erriko euskerari indar barri bat emotekotan.

Gure erri hau oraingoz euskaldun dogu, naiz da bertako euskera egoera gatx baten aurkitu. Ez dira izan ba alperrezkoak gure aurrekoen aleginak. Ala ta guztiz bere, hemen bere, atzeraka asi jaku euskera. Arrisku aundi batean aurkitzen da. Zer dala-ta? Ikusi daigun:

1.<sup>o</sup> Ezer baino len, Aramaio'ko bizitza azkenengo urte oneetan, asko aldatu dala esan bear. Eta aldaketak beti dakarre heuren arriskua, onerako izan arren. Beste Euskalerriko bazter geienetan legez, baserri bizitza-ta atzeraka asi jakuz. Baserri txikiak ez dabe bertatik biziteko lain emoten eta beste bideren batzuk artu behar. Hau dala-ta, gaur egunean Aramaiotar erdiak baino geiagok lantegi lanetik atarutzen dabe jatekoa.

Honeek danok berez dakarre baserri bizitza makaltzea, bertako seme-alabak kanpora joatea, kale-bizitza indartzea. Baserri ta auzo bizitza berantza etorri jakuz, kale ta lantegi bizitza gorantza doazen era berean.

Ikusten dogun lez ba, baserriak gitxitzera doakuz, eta gaur, kale-inguruan bizi jakuz aramaiotar geienak. Errialdeak berak bere, askenengo urte honeik arte, utsitzera egin dausku. Orain hemengo etxegintza ugaritu danez, bertako semeak nun bizi erritik urten barik daukee. Etxe barri horreik ugaritzean dago, egon bere, gure erriaren etorrera. Lantegirik ez dagoanez, ugaritu daiguzan beintzat etxeak errialde hau gorantza ikusi daigun.

Bizitza aldatze honek ondorengo eder asko bere ekarri daukuz. Gaurko aramaiotarrak lengoak baino askozaz obeto bizi gara. Eskolatz bideetan bere aurrerakada aundiak izan ditugu azkenengo urte honeetan. Inguru osoan jakin-gura aundi bat sortu jaku, lantegietarako ondo gertatu beharrak zirikatuta edo. Bertako seme-alabak eskola mailetan gorantz asi jakuz. Geroago ta gizon jakintsu eta trebetsu geiago izango ditugu ba gure artean. Baina onek, bere arriskua bere da da-

kar gure euskerarentzat, sarri askotan gure neska-mutil horreik guztiz erderatuak izaten diralako.

Agiri jakun legez ba, gure erri hau aldatze bidetik aurrera doaku. Urte batzuk barru guztiz aldatuta agertuko jaku. Ori dala-ta aparteko ardura aundi bat artu beharko dogu, ostantzeko errietan legez euskera ta beste oitura zaharrak galdu ez daiguzan.

- 2.º Baina jo daigun arira. Azkenengo urte honeetan «Zeruko Argia»n da, behar ez diran batzuk irakurri ditugu, hemen euskera betiko galdu dala-ta holango batzuk. Billera honek naiko ondo agertzen dau hori ez dala egi utsa.

Gaur egunean gure euskera, beste toki askotan legez, arrisku bizian agiri jaku, besterik ez. Beste edozein baztarreko arrisku berberetan. Ezin daikegu ba esan, ez euskera galdu danik ez indartsu dagoanik. Gure euskera atzeraka doala? Bai, eta... nun ez?

Hau holan, zelan dago gure euskera Aramaiona honetan? Hona hemen nire eritxia:

- A) *Kalean* (izen honegaz hau «Ibarra» izendatzen dogu) Utsune aundi batzuk:

- 1) Lau urtetik beragoko umeak: Geienak, euskaldunen seme-alabak, badakie euskeraz, naiz da batzuk behar dan lain ez. Batzuk sortu berri dan ikastolara bialtzen ditue gurasoak. Erdeldunen seme-alabak ez dakie ezertxo bere. Ala ta guztiz bere ardura gutxi agertzen dabe guraso askok, euskera erakuste horrerri behar dauan garrantzirik emon ezaz.
- 2) 4'urtetik 7'artekoak. Bertakoen seme-alaba geienak aitzen dabe euskeraz. Berba, gutxik eta etxean baino ez. Eskolara asteen, guztiz baztartzan dabe euskera. Gurasoak be ardura gutxi agertzen dabe eta ume horreik euskera guztiz aztuteko arrizku gorrian daukaguz.
- 3) 7'urtetik 17'artekoak, erdiak baino geiagok guztiz aztu dabe euskera. Beste askok aitu baino ez dabe egiten. Banakaren batzuk bakarrik errestasunez berba.
- 4) 17'urtetik goragokoak, kanpotar utsak izan ezik geienak aitzen dabe euskera, naiz batzuk, neska-mutil gazteak eta andrazkoak, berba egiteko lain errestasun euki ez.

Zeozar agiri jaku ba garbi: 17'urtetik berakoen artean ez dogu ia euskerarik entzuten, eta 17'urtetik gorakoak geroago ta gitxiago egiten dabe. Andrazkoak, geienak, lendik itxita dauke euskeraz egitea. Agirian bentzat! Gizonak askenengo urte honeitan geroago ta gutxiago egiten dabe. Atzaraka goaz ba.

- B) *Baserri-auzoetakoak*, ostera, danak ditugu euskaldunak, naiz da heuren artean bere neskak eta andrak erderaruntz egin. Hori dala-ta oraindino euskera indartsu agiri jaku Aramaiona'n. Ea Aramaiotar erdiak inguru baserrietan bizi diranez oraindik gure euskera naiko indartsu dagoela hemengo lurraldeetan esan behar. 327 sendi buruen artean 28 erdeldun baino ez dagoz. Gainetikoak euskaldunak dira, eta honein artean erdiak inguru baserritarrak.

Baina hemen dago kakua. Hori holan izan arren geroago ta euskera gutxiago entzuten da emetik. Baserrietan dan-dana euskeraz, baina behin kalera inguratu ezkeru, ia gutzia erderaz. Batez ere berrogei urtetik beragokoen artean. Gazteak egia esan behar, azkenengo urte bi honetan onera egin dabe. Nagusiak eta umeak ez.

Zer esan? Atxakiak ugari, zaletasun gutxi, eta buru arin eta ezjakin asko. Badakigu telebizioak-eta, kalte aundia egiten daukuela, oso-osoan erderazkoak diranez, baina ori ez da naurrizko atxakia. Inundiko laguntza aundirik bere ez dogu euki, egia esatekotan. Baina bai beste baztar askotan baino giro obea!

Aramaiona'ko euskerea ez da berez ilgo. Geuk ilgo dogu. Geu izango gara iltzaile eta errudun zeozar geiago honetan alegintzen ezbagara. Eta euskera itoaz batera geure erri au bere ilgo dogu. Geure nortasuna eta berezitasunak betiko itoko ditugu. Euskera galteaz batera, geure kultura aberastasunik ederrena bere galduko dogu.

*Zer egin ba, gure euskeraren alde?*

Bide askotatik jo daikegu aurreruntz. Zer egin asko bere badaukagu esku artean. Euskeraren etorrer aez dago jakitunen eskuetan erriaren erantzunean baino. Aramaiotarrak gura badogu, ez da